

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

AUTOESTIMA HAUR HEZKUNTZAN LANTZEAREN GARRANTZIA

Egilea: Noelia de Castro Romero

Zuzendaria: Nahia Idoiaga Mondragon

Leioan, 2017ko maiatzaren 25ean

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta gaur egungo egoera	5
1.1. Zer da autoestima eta nola garatzen da?.....	5
1.2. Autoestimaren lanketa eskola eremuan: Errepaso historiko bat.....	6
1.3. Autoestima Haur Hezkuntzan: Ikerkuntzaren ikuspegia.....	7
1.4. Zergatik da garrantzitsua autoestima Haur Hezkuntzatik lantzea?	8
1.5. Nola landu beharko litzateke autoestima Haur Hezkuntzan.....	8
2. Helburuak.....	10
3. Metodologia	11
3.1. Dokumentazio teorikoaren azterketa.....	11
4. Emaidzak.....	13
4.1. Dokumentazio teorikoaren azterketa.....	13
4.1.1. Urtxintxa proiektuaren helburuak	13
4.1.2. Jarduerak	14
4.1.3. Zehar lerroekiko lotura.....	14
4.1.4. Behaketarako adierazleak.....	15
3.2. Irakasleei galdesorta.....	15
5. Ondorioak.....	19
5.1. Limitazioak	21
6. Erreferentzia bibliografikoak	22
7. Eranskinak.....	24
1. eranskina:	24
2. eranskina: irakasleei helarazitako galdesorta	25
3. eranskina: lagina profilaren grafikoak.....	26
4. eranskina: dokumentazio teorikoaren azterketa sistematizatua taulako parametro bakoitzari aipuak erantsiaz.	28
5. eranskina: helburuak jardueri dagokionez.....	31
6. eranskina: zehar lerroekiko lotura.....	32
7. eranskina: behaketarako adierazleak.....	33
8. eranskina: galderi dagozkien grafikoak.....	34

Autoestima lantzearen garrantzia Haur Hezkuntzan

Urtxintxa Proiektuaren analisisa

Noelia de Castro Romero

UPV/EHU

Lan honen helburua, Ikastolen Elkarteko Haur Hezkuntzarako Urtxintxa programan autoestima lantzen ote den eta lanketa hau zein eratan burutzen den aztertzea da. Lana burutzeko lehen pauso gisa, autoestimari buruzko errebisio teorikoa egin da, bereziki Haur Hezkuntzan beronen lanketan oinarrituaz, bertako marko teorikoa erabili delarik gero Urtxintxa Proiektua aztertzeko. Azterketa bi esparrutan burutu da, alde batetik, Urtxintxa Proiektuko dokumentu edo euskarri ofizialak eta bestetik, teoria eta praktikaren arteko aldea ikusteko asmoarekin, proiektu hau erabiltzen duten zenbait irakasleri galdesorta bat pasa zaie. Oro har, azterketatik ondorioztatu ahal izan dugu, Urtxintxa proiektuak badituela autoestima lantzeko hainbat gako nahiz eta oraindik zenbait puntu hobe ditzakeen.

Autoestima, proiektua, hezkuntza eragilea, garapen pertsonala, Haur Hezkuntza

El objetivo de este trabajo es investigar si la autoestima se trabaja en el proyecto Urtxintxa llevado a cabo en Educación Infantil en la comunidad de ikastolas, y si lo hace, de que manera lo trabaja. Primeramente se recopiló información referida a la autoestima en Educación Infantil. Basándonos en este marco teórico por un lado, hemos analizado los documentos oficiales del proyecto. Por otro lado, hemos realizado una comparación entre la teoría y la práctica que unen Urtxintxa. Para ello, hemos transferido una encuesta a diferentes profesores que trabajan con este proyecto. De todo el trabajo, deducimos que Urtxintxa trabaja en diferentes medidas la autoestima pero que aún quedan varias claves en las que profundizar.

Autoestima, proyecto, promotor educativo, desarrollo personal, Educación Infantil

The purpose of this paper is to analyze how and to what extent is self-esteem developed in the Urtxintxa program within the Local Ikastolas regarding Preschool. The first step for the proper development of the project has been the theoretical review of the self-esteem term, focusing on the preschool education's own analysis. This framework will serve on the analysis of the Urtxintxa project. There have been two different sources used in the analysis for the sole purpose of seeing the difference between the theoretical and practical frameworks. On the one hand, the official documents of the Urtxintxa project and on the other hand, questionnaires from actual Urtxintxa users. In short, Urtxintxa project shows several gaps regarding self-esteem, hence, there is a chance for improvement in certain aspects.

Self-esteem, project, educational promoter, personal development, Child Education

Sarrera

Lan honen xedea, autoestima Haur Hezkuntzan lantzearen garrantzia ezagutaraztea eta eskola metodologia konkretu batean, autoestimari, alderdi teoriko zein praktikotik ematen zaion garrantzia ikertzea izan da. Hain zuzen, Euskal Herrian oso ezaguna den Urtxintxa metodologian oinarritu da lan hau.

Autoestimak haurrengan duen eragina oso handia da, izan ere, hau nola eraikitzen duten kontuan hartuta, haurrek modu bateko edo besteko izaera garatuko dute etorkizunari begira. Prozesu hau ahalbidetuko duten iturri nagusiak familia eta eskola izango dira, iturri biak autoestima osasuntsu batera heltzeko mugarriak direlarik. Beraz, irakasleak berebiziko rol-a betetzen du autoestimaren eraikuntzan, izan ere, haurren nahi eta beharrak asetzeaz gain, baliabide egokienak eskaini behar dizkie, bai zuzenean zein zeharka autoestima lantzea ahalbidetzeko. Izan ere, eskoletan, alderdi teorikoan sarritan garrantzia hartzen duen gaia da autoestima baina praktikan, helburu edo xede horiek benetan aurrera eramaten diren ikusi beharra dago.

Lan hau aurrera eramateko, ikerketa erabili dugu baliabide nagusi gisa. Hain zuzen, autoestimak bere gain dituen elementu desberdinak aztertuko ditugu. Ikerketa hori alderdi kualitatibo zein kuantitatiboan jorratuko dugu. Alde batetik, Urtxintxa proiektuaren dokumentu ofizialak aztertu ditugu. Bestetik, proiektu horrekin lanean diharduten hainbat irakasleri galdesorta bat pasa diegu. Bi informazio iturri horietatik jasotako emaitzek, teoria eta praktikaren arteko aldea zein den ikusteko aukera eman digute.

Honen bidez, erdietsi ditugun ondorioei so eginez, autoestimari teorian eta praktikan ematen zaion garrantzia ez dela berdina ikusi da. Ikastoletan, zeharkako moduan, haurrek bereganatzen duten informazioa anitza da eta askotan ez dago Urtxintxa jarraitzen duten zentro guztien artean irizpide bakarra. Hau da, teorian autoestima lantzen dela bermatzen den arren, praktikan, errutinan, ideia horrekin era eta maila anitzetan lotuta dauden ekintzak eta egoerak sortzen dira gelan eta lekuan lekuko irakasleen esku dago autoestima maila oso batean lantzea edo ez. Bereziki, autoestima zenbait modutan lantzen den arren, arlo desberdinak nekez lantzen direla ikusi dugu.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta gaur egungo egoera.

1.1. Zer da autoestima eta nola garatzen da?

Autoestima, gure buruarekiko konfiantza eta errespetuaren arteko batura da (Izquierdo, 2008). Honek bakoitzak bere buruarekiko dituen usteak islatzen ditu, bizitzan agertzen diren erronkei aurre egiteko, alegia. Gainera, autoestima, bakoitzak bere buruarekiko duen begiradarik sakonena izanik, identitatearen onarpen positiboa da eta gure baliozkotasun eta gaitasunean oinarritzen da (Izquierdo, 2008). Beraz, autoestimak, oro har, auto-konfiantza, kompetenziaren sentrazioa, errespetua eta begirunea aintzat hartzen ditu (Izquierdo, 2008).

Autoestimak, autokontzeptu izeneko terminoarekin lotura estua du. Oro har, autokontzeptua modu deskribatzaileari egingo dio erreferentzia eta autoestima ideia horiek interakzio sozialean hartzen duten lekua eta ematen zaion balorazioa izango da (González, Núñez, Glez.-Pumariega eta García, 1997).

Autoestimak haurrengan duen eragina oso handia da, izan ere, hau nola eraikitzen duten kontuan hartuta, haurrek modu bateko edo besteko izaera garatuko dute etorkizunari begira (Miranda, 2014). Prozesu hau ahalbidetuko duten iturri nagusiak familia eta eskola izango dira, iturri biak autoestima osasuntsu batera heltzeko medio direlarik. Beraz, eskolatik jasotako hezkuntzak ere berebiziko rol-a betetzen du autoestimaren eraikuntzan, izan ere, haurren nahi eta beharrak asetzeaz gain, baliabide egokienak eskaini behar dizkie eskolak, bai zuzenean zein zeharka autoestima lantzea ahalbidetzeko (Martinez, 2010).

Oro har, autoestima pertsonengan kontuan hartu beharreko faktorea da, batez ere, bizitzako arlo guztietarako baina bereziki, etorkizun hurbileko jarduera akademikoetara dagozkien alderdiei aurre egiteko. Rice-k (2000) proposatutako erara pertsona baten autoestima, harenganako duen begirunea da. Autore honek, autoestima arimaren aztarna eta duintasunaren gakoa dela aintzakotzat hartzen du.

Autoestimaren garapen prozesu horretan, gizakien arteko interakzioa premiazkoa izango da, pertsonen haien arteko garrantzia nabaria izango baita. Izan ere, estimaren garapen egokia jorratu ez duten pertsonak ez dute haien lorpenekiko asetzeari lortuko (Maslow, 2012).

1.2. Autoestimaren lanketa eskola eremuan: Errepaso historiko bat

Hezkuntza sistemaren barnean egungo curriculum-ak autoestimari berebiziko garrantzia ematen dio, curriculum hau delarik gure eskoletan martxan jarrita ditugun metodologia ezberdinen oinarria. Haur Hezkuntzako curriculum-aren barnean aipatzen diren kompetentzien artean, autokontzeptuari eta oro har, autoestimari bereziki egiten zaio erreferentzia. Ondorengo eran norberaren ezagupen pertsonalari aipua eginez. Beraz, egungo curriculumak argi lantzen du autokontzeptu positibo bat eraikitzearen premia autoestima horren mugarrira litzatekeelarik.

“Nortasun pertsonala eraikitzea haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen interakzioen emaitza da, haurraren esperientzia multzoaren ondorioa, alegia. Interakzioek nork bere buruaren benetako irudia lortzea, autonomia, norberaren gaitasunez jabetzea, eta segurtasuna eta autoestima sustatu behar dituzte. Prozesu horretan haurrangan sortzen diren sentimenduek lagundu egingo dute nork bere buruaren kontzeptu egokitu gauzatzeko. Horrek, gero, aukera emango die bere gaitasunen arabera hautemateko eta jarduteko, garapen osorantz eta harmonikorantz aurrera egin dezan.” (Haur Hezkuntzako Curriculum, 2009, 13 orri)

Gaur egungo curriculum-ak autoestimaren inguruan orain arte aipatutakoa dioen arren, aurreko belaunaldietan gai hau era anitzetan landua izan da, beraz, historikoki autoestimaren trataerak izandako bilakaera funtsezkoa da gaur egun gauden puntura nondik heldu garen barneratzeko. Historian zehar, edo hobe esanda, historian zehar jorratuz joan diren eskola eredu ezberdinek, helburu anitzak izan dituzte autoestimarekiko. Hasteko XVII mendetik XIX mendera arte bereziki gailendutako eskola “tradizionalaren” ereduak irakaskuntza bereziki gidatua eta autoritarioa izan zen, bere ezaugarri nagusiak bertikaltasuna, autoritarismoa, berbalismoa, intelektualismoa, garapen afektiboaren atzeratzea, etxekotzea eta interakzio sozialekiko galga izan zirelarik (Panzsa, 1988). Garai historiko horretan, eta eskola tradizional honen baitan behintzat, eskolan haurren nahi eta beharrei sistematikoki jaramon gutxi egiten zitzairen. Horren ordez, autoestimaren izatea bikaintasunari lotutako errekonozimendu prozedurei lotzen zen (Savater, 1997). Bikaintasuna lortzen zuenak errekonozimendua eta bere izateari buruzko balorazio positiboak jasotzeko eskubidea zuen. Gainera, garai honetan nahiko ohikoa zen oraindik larriagoa den prozesu bat non ikasteko bikaintasuna goraiatzen zen eta ez lorpenezkoa. Hau da, bakoitzaren lorpenetatik haratago errekonozimendua izatez estatus maila altua zuten ikasleek (aberats zirenak, erlijio, nazionalitate, sexu edo arraza konkritu batetakoak edo agintarien familietakoak) soilik

jasotzen zuten (Savater, 1997). Eskola tradizionala deritzon honetaz gain edo hertsihertsian berau izan gabe, gaur egungo eskolara arteko ereduak beste zenbait izan dira ere baina oro har, eskola tradizionalen kutsua hartzen zuten, modu batean edo beste batean.

XIX. mendetik aurrera ordea, hezkuntza munduan iraultzen hasi ziren John Dewey, Adolphe Ferrière, María Montessori, Paulo Freire, Roger Cousinet, A. S. Neil, Célestin Freinet edota Jean Piaget bezalako pedagogoko filosofoak, hezkuntza eredu berri baten beharra aldarrikatu zutelarik (Narváez 2006). Eskola eredu berri honetan, haurraren rol aktiboa eskatzen zen. Haurra, gizartean bizitzeko prest agertu behar zen eta horretarako, esperientziak bizi behar zituen. Horrez gain, haren pentsamoldea zein ideiak kontuan hartu behar ziren, haren interesen arabera, eskola planteatzeko (Van Arcken, 2012). Gainera, askatasunean, sormena eta garapen sozio-kognitiboari dagozkien zenbait alderdiren garapena sustatzea dute helburu eskola eredu berri hauek (Van Arcken, 2012). Testuinguru honetan, autoestimaren garrantzia plazaratu zen eta hezkuntza erronken artean leku esanguratsua hartu zuen.

Horrela, hein batean XIX. mendean eta aipaturiko filosofo pedagogoen lanei esker autoestima landu eta zaindu behar den gaitasunen artean kokatu da, bai eskola mailan eta baita gizartean ere (Aguerrondo, 1997). Izan ere, herrialde batean hezkuntza sistema konkretu bat zehaztuta dagoenean, gizartearen pentsamendua, ez beti baina neurri handi batean, molde horretara atxikita dagoela esan nahi du, beraz, eskola eredu bat aldatzen denean, gizarte osoaren pentsamoldea aldatzea ekartzen du hein handi batean (Aguerrondo, 1999).

Momentu oro, eskolaren eraginaz historian zehar mintzatzen ari garen arren, beste iturri batzuek ere, haurraren autoestimaren eraikuntza horretan berebiziko garrantzia dute: familia, ingurunea, kultura, herrialdea. Halaber, familia izango da eskolaz gain, haurra gehien baldintzatuko duen faktorea (Moreno, 2001).

1.3. Autoestima Haur Hezkuntzan: Ikerkuntzaren ikuspegia

Sarri ikertu izan da autoestimaren inguruneko faktoreek duten garrantzia, bereziki familiaren ikuspuntutik (Cassidy, 1990; Cichetti, 1997; Román, Sánchez, Secadas, 1997 eta Alonso, 2002). Halaber, familiaz gain bestelako erreferenteek ere haurrek haien buruarekiko duten pentsamoldean eragiten dutela uste da. Koxka horretan eskolak,

irakasleek eta ikaskuntza ereduak botere nabarmena lukete autoestimaren garapena sustatzean (González, Núñez, Glez.-Pumariega eta García, 1997). Halere, oraindik gutxi ikertu izan da maila praktiko batean gaur egungo ikaskuntza eredu ezberdinek autoestimaren garapenean duten nabarmentasuna. Horrela, lan honetan lantzen den gaia, guztiz agortuta ez dagoela esan beharra dago. Hau da, ekarpen berria dela azpimarratu beharra dago.

1.4. Zergatik da garrantzitsua autoestima Haur Hezkuntzatik lantzea?

Haurrak jaio egiten direnetik arlo desberdinetan garatu egiten dira, garapen integrala gertatzen da. Horren barnean, autoestima da pisu gehien hartzen duen faktorea. Haurrak autoestima ona izateak, bizitzan agertuko zaizkion egoera latz desberdinei aurre egiteko grina emango dio. Autoestima, hurrek erronka berriei aurre egiteko, gaitasun desberdinak garatzeko eta bere burua aski izateko boterea ematen die, izan ere, horrengan guztiarengan eragina du (Miranda, 2014). Autoestima egokia garatu ezean, haurrak frustrazioa eta herstura sentituko ditu etorkizunean (Gullamón, 2014). Autoestima altu edo egokiaren bidez, besteekin interakzioan egoten oinarritzen diren egoeretan eroso sentituko da eta harentzat plazerezko egoera izango da. Horrez gain, hurrek haren alderdi sendo eta ahulak ezagutzeko aukera izango dute autoestima osasuntsua garatzen dutenean eta horietan, pentsamolde positiboa nagusi izango da (Cano, 2011).

1.5. Nola landu beharko litzateke autoestima Haur Hezkuntzan

Nahiz eta ikerketa zientifiko gutxi egiten dituzten autoestima Haur Hezkuntzan lantzeko proposamen zehatz eta enpirikorik, guk arlo honetan hezkuntza emozionala maila osatuan lantzea planteatzen duten Ribes eta kolaboratzaileen (2005) proposamena balizkotzat jotzen dugu (Ribes, Bisquerra, Agulló, Filella eta Soldevila, 2005).

Lehen urteetatik erreakzio emozionalen kontrola garatzearen inguruko ikerketetan, gaia sakonki aztertu da, gaitasun sentimendua autoestimarekin parekatuz. Emozioak kontrolatzeko gaitasuna duen haurra bere buruarekin hobeto sentituko da eta kompetentzia maila handiagoa izango du, haren aurrean agertzen diren egoerei aurre egiteko (Soldevila, Agulló, Filella eta Ribes, 2005).

3 eta 4 urte bitarteko haurrak haien burua ezaugarri konkretu eta ikusgarriak diren hitzekin identifikatzen dituzte, batez ere, aspektu fisikoari dagozkien alderdiei erreferentzia egiten diote edota haiek jorratzen dituzten zenbait ekintzei dagozkienak.

Hala ere, haur batzuek aspektu psikologikoak azaleratzeko gaitasuna ere badute.

Adin tarte honetan ematen den autokontzeptu eta autoestimaren pertzepzioa jadanik bizi duten esperientziak direla eta baldintzatuta daude. Pixkanaka-pixkanaka haien buruarekiko balorazio positibo bat garatzeko laguntza eskaini behar diegu, hain zuzen, tolerantzian eta onarpenean oinarrituta dagoen aniztasuna barneraraziz (Ribes et al. 2005).

Ribes et al.-ek (2005) curriculumari dagozkion autoestima lantzeko proposamenean, helburu gisa haurrek haien buruarekiko arlo fisikoari dagozkien ezaugarriak azaleratzeko gaitasuna izan beharko luketela nabarmendu zuten. Horrez gain, haien ingurunean diharduten pertsonen inguruko ezaugarriak identifikatu ahal izatea ere garrantzitsua zelarrik. Honekin batera, haien nahiak azaleratzeko kapaz izan beharko liriateke, oro har, modu orokorrean, haiek gustuko dutena edo nahiago dutena azaleratzeko gaitasuna garatu beharko lukete. Azkenik, planteatzen zuten azken helburua maitasunari erreferentzia egiten zion nagusiki. Oro har, haurrek haiek maite dituzten pertsonak identifikatzen jakin beharko lukete; familia bereziki.

Aurrean aipatutako ideiak, jarraian agertzen den taulan azalduta daudela jakinda, horien garrantzia handia dela esan beharra dago, izan ere, haurrak, autoestima garatzen doan heinean jarraitzen duen ildoan ondo azaltzen du (Ribes et al, 2005).

Kontzeptualak	Prozedurazkoak	Jarrerazkoak
Nire ezaugarriak	Nire ezaugarriak azaleratzea	Nire ezaugarrien balorazioa egiteko gaitasuna
Besteen ezaugarriak	Besteengandik gustatzen zaizkigun gauzak deskribatzea.	Ezaugarri horiek identifikatzearen garrantziaz jabetu eta horien azaleratzea momentu konkretu batzuen esateko gaitasuna
Nahi eta nahiagoak identifikatu	Nire nahiak eta nahiagoak ezagutzeko estrategiak ezagutzeko	Nire nahi eta nahiagoen balorazioa egiteko gaitasuna
Pertsonen arteko desberdintasuna aspektu positiboari dagokionez	Pertsonen arteko desberdintasunak deskribatzeko gaitasuna	Desberdintasun horien balorazioa egiteko gaitasuna izatea
Estima eta pertsona hurbilekin harremana: familia	Norbait maite dugunean egiten ditugun demostrazioak: musuak, besarkadak, etab.	Maite gaituzten pertsonen kontzientzia hartzea.

1.taula: Ribes et al. (2005)-en arabera, autoestimaren garapen parametroak

Aipatu berri dugun taulan aipatutako parametro horiekin batera, hurrek autoestima modu egokian gauzatzeko bidean alderdi edo testuinguru desberdinek eragina dute: akademikoa, soziala, familiarra, aspektuala eta morala. Horiek haien arteko elkarreragina aipatzea berebizikoa da, batean gertatzen edo ematen denak, beste alderdietan eragina izango duelako (Bermudez, 2000).

2. Helburuak

Gauzak honela, eta aipatutako oinarri teoriko guztian errotuaz, autoestima Haur Hezkuntzan lantzeak berebiziko garrantzia duela argi geratu zaigu. Izan ere, autoestimaren garapena landu egin beharra dago gure eskoletan hezkuntza emozional osatu bat eskaintzeko. Honenbestez, Gradu Amaierako Lan honen ekarpen gisa autoestima eskolako esparruan maila teoriko eta enpiriko batean nola lantzen den aztertuko dugu. Landutako guztia eremu konkretu batean aztertu nahian, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko ikastetxe nahikotxok partekatzen duten Urtxintxa metodologia lagin gisa hartzea erabaki genuen. Alde batetik, metodologia horren alderdi teorikoa aztertuko dugu, honek autoestimari eta gai horren inguruko terminoei nolako aipamena egiten dien eta ematen dien garrantzia plazaratuaz. Beste alde batetik, errealitatean metodologia honekin diharduten irakasle desberdinei galdesorta bat helaraziko diegu, maila enpiriko batean beronen lanketa aztertzeko helburuarekin.

Honenbestez, lan honen helburu nagusia, Haur Hezkuntzako Urtxintxa Proiektuan autoestima zein mailatan eta nola lantzen den jakitea izango da maila teoriko zein praktikoa aztertuz. Konkrétuki, 3-4 urteko hurrei zuzendutako gida aztertuko da Ttamtto izenekoa.

Helburu orokor horretatik abiatuta, helburu zehatz batzuk erator ditzakegu:

- Haur Hezkuntzan planteatzean den Urtxintxa proiektuak, maila teorikoan autoestima lantzeari ematen dion garrantzia nolakoa den kuantifikatzea.
- Proiektu horren dokumentuetan autoestima lantzen dela esaten bada, praktikara aurrera eramaten duten aztertzea.
- Proiektu hau darabilten irakasleek autoestimaren garrantziaz duten ideia edota ematen dioten garrantzia nolakoa den arakatzea.

- Autoestima hitza erabiltzetik edo ez erabiltzetik haratago, Urtxintxa proiektuak darabilten ikastoletan horren inguruko lanketa bermatzea.

3. Metodologia

3.1. Dokumentazio teorikoaren azterketa

Gure ikerlanaren lehenengo aztergaia, Urtxintxa Proiektuaren barnean, 3-4 urteko haurrei zuzendutako programaketaren gida izango da. Hain zuzen, gure aztergaia edo lagina bi dokumentuk osotzen dute; proiektu beraren gida didaktikoa eta materialen gida. Oro har bi gidek, proiektuaren bertsio digitala zein liburuen bidezkoa, Urtxintxa proiektuaren informazioa osotzen dute. Horrela, bi dokumentuen azterketa, batera jorratuko dugu. Hauen barnean, ondorengo atalak aztertuko ditugu: helburuak; jarduerak; zehar lerroekiko lotura eta behaketarako adierazleak.

Azterketa jorratzeko, esparru teorikoan autoestimaren lanketaren indikatzaileak landu ditugu, horretarako autoestimari egindako erreferentzia zuzenak aztertzeaz gain, Ribes et. al-en (2005) sailkapenak proposatutako parametroetan ere oinarritu gara. Beraz, giden azterketa ahalik eta sistematikoena eta zientifikoena izan dadin dokumentuak aztertzeko taula sistematizatu sortu dugu Ribes eta kolaboratzaileek (2005) plazaratutako parametroetan oinarrituta (ikus 1. eranskina). Taula horretan, dokumentazio teorikoan planteatzen diren parametro horien azalpen laburra baino ez da agertuko.

3.2. Irakasleei galdesortak

Beste aldetik, teoria horretan plazaratzen dutena, Urtxintxa proiektua lantzen dauden irakasleek praktikan aurrera nola eramaten duten aztertuko da. Horretarako, Urtxintxa proiektua aurrera eramaten duten Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa ikastola desberdinetan lan egiten duten 39 irakasleri galdesorta bat pasatu diegu eta bertan, autoestimaren lanketa hori gelan nola jorratzen duten galdetu zaie. Irakasle hauekin kontaktuan jartzeko Ikastolen Elkarteko hainbat ikastolekin emailez kontaktuan jarri ginen gure lanaren berri emateko eta gurekin kolaboratzeko prest zeudenei link bidez galdesorta bidali genien.

Galdesorta horretan, Ribes et al.-ek (2005) planteatzen duten autoestimaren lanketari dagozkien parametroei erreferentzia egiten dieten galderak agertzen dira. Horrela,

azpimultzo desberdinak sortu ditugu: autoestima maila esplizituan, norbere ezagutza, besteen ezagutza, nahiak eta desirak, pertsonen arteko ezberdintasunak eta estima eta harremanak.

Galdera horiek, erantzun posible desberdinak dituzte. Oro har adostasun eta desadostasun maila desberdinak hautatzeko aukera ematen zaie. Halaber, azken bi galderak, irakasleei haien iritzi eta ideia desberdinak helarazteko aukera ematen diete, erantzun luze eta zabal bat idazteko aukera dutelarik (Ikus 2. Eranskina).

3.2.1. Lagina

Gure laginean, 39 irakaslek hartu zuten parte. Guztiak Ikastolen Elkarteko Ikastoletako Haur Hezkuntzako irakasleak ziren. Ondorengo puntuetan haien profila azalduko dugu baina horien grafikoak 3. eranskinean ikusgarri daude.

- %84,2-a emakumeak izan ziren eta %15,8-a gizonezkoak.
- Adinari dagokionez %36,8-ak 50 urte baino gehiago zuen; %18,4-a 40 eta 50 urte tartekoa zen; %26,3-a 30 eta 40 urte tartekoa eta %18,4-a 20 eta 30 urte bitarteko adina zuten.
- Lan lekuari dagokionez %47,4-k Bizkaian egiten zuten lan; %26,3-k Gipuzkoan; %15,8-k Nafarroan eta %10,5ek Araban.
- Lanean zeramatzaten urteei buruz galdetuta %21,1-a 0-5 urte bitarteko denboran jardun dute irakasle lanetan; %10,5-a 5-10 urte; %18,4-a 10-15 urte, %21,1-a 15-20 urte eta 20 urte baino gehiago %28,9-a.
- Haur Hezkuntzako zein mailatan lanean zeuden galdetuta %5,3-a 2 urteko gelan lan egiten zuen; %36,8-a 3 urteko gelan; %34,2-a 4 urteko gelan eta %23,7-a 5 urteko gelan.
- Haur Hezkuntzako geletan, zenbat haur zituzten galdetuta, haur kopururik handiena 27 haurretakoa izan da eta txikiena 9. Oro har, ikastola bakoitzean haur kopuru bat egon da baina horien arteko batz bestekoa, 19,8 haur izan dira.

Behin metodologia zein den azalduta eta erkatuko ditugun bi alderdiak jakin ondoren, emaitzak aztertzeari ekingo diogu.

4. Emaidzak

4.1. Dokumentazio teorikoaren azterketa

Atal honetan dokumentazio teorikoaren azterketako emaitza nagusiak aztertuko ditugu metodologia ataleko parametroetan oinarrituta. Dokumentazio teorikoaren azterketa sistematizatu taulako parametro bakoitzari dagozkien aipuak 4. eranskinean aurki daitezke eta beraz hemen bakoitzeko emaitza nagusiak baino ez ditugu plazaratuko lana ez luzatze aldera.

4.1.1. Urtxintxa proiektuaren helburuak

Nire ezaugarriak:

Helburuen barnean Urtxintxaren helburu orokorrak eta Haur Hezkuntzako curriculumaren bi eremuei erreferentzia egiten dietenak desberdintzen dira. Oro har, nork bere burua ezagutzea ahalbidetzen duten aipu desberdinak agertzen dira. Horietan, beronen gorputzaren ezagupena azpimarratzen da arlo desberdinei dagokionez. Hain zuzen, horren zaintzan eta kontrolean oinarritzen diren faktoreak plazaratzen dira. Halaber, bakoitzak dituen jarrera, sentsazio eta sentimenduei garrantzia ematen zaio, horiek manaiatzeko aukerak eman behar diegularik. Orobat, horien bilketa autoestima egoki baterako ildo jarraitzea ahalbidetuko du.

Besteen ezaugarriak:

Nork bere buruarekiko ezaugarriez jabetu behar diren arren, besteekiko ezaugarriek ere garrantzia hartzen dute haien hazkuntza prozesuan, izan ere, besteekiko mantentzen duten harremana premiazkoa izango da aurrera jarraitzeko. Horrela elkarrekiko harremana sendotzeko abiapuntua izan daiteke. Besteei erreferentzia egiten dieten aipu horietan, bai ahozko zein idatzizko hizkuntzari aipua egiten zaio. Hain zuzen, besteekiko harremanetan interesa eta errespetua sustatzeko jarrera nabarmentzen da. Horrez gain, giza taldearen parte izateak, elkarbizitzan jarduteko ekimena ahalbidetzen du eta hori, autoestimaren garapenean garrantzia izango du.

Nahi eta nahiagoak:

Hurrek nahi eta nahiago dutena aukeratzeko orduan, haren erreferentzia puntua den eskolatik, aukerak jaso behar ditu. Proiektu honen barnean, pentsamendu arrazional eta zientifikoaren lehen urratsei aipamena egiten zaio eta pentsamendu horretatik abiatuta,

haurrengan objektu edo pertsonak sortzen dituzten sentrazio atsegin eta desatseginak kontuan hartuko dituzte.

Pertsonen arteko desberdintasuna:

Pertsonen arteko desberdintasunari dagokionez, horien artean, pertsonen arteko ematen den harremanaren garrantzia azpimarratzen da berriro ere. Gainera, hizkuntza oinarri izanik, bakoitzak dituen interes eta sentimenduez bestekin hitz egitea, pertsonen arteko desberdintasun hori bereganatzea dakar. Aldi berean, bakoitzak bere ideia eta iritziekiko defentsa egiteari garrantzia ematen zaio, iritzi guzti horiek errespetuz tratatuak izan behar direlarik.

Estima eta harremanak:

Beronek gizartearekiko duen jarrera, giza taldearen parte sentitzearekin harremanatzen da. Horrela, horrek eskatzen duen eginkizun eta ekimenetan parte hartzeak berebiziko garrantzia izango du.

3.1.2. Jarduerak

Helburuak aztertuta, Urtxintxak planteatzen duen gisa, horiek jardueretan sailkatzea legoke. Horrela aipatutako helburu horiek zein neurritan jardueretan aipatzen diren jakingo dugu. Hau da, jarduerak sekuentzia tematiko baten barnean jarduten dutela jakinda, eremu desberdinetako helburuak landu ditzakete (ikus 5. eranskina). Urtxintxa proiektuak bere gain hartzen dituen jarduera motak anitzak dira: abestiak, olerkiak, ipuinak, sailkapenak, zenbakiak, memoria, hiztegia, puzzleak eta itzalak.

Oro har, bertan agertzen diren zenbait jardueretan, ez dira helburuak betetzen. Esaterako: estima eta harremanak puntuari erreferentzia egiten dieten aipurik ez dira agertzen. Gainera, betetzen diren kasuetan, neurri desberdinetan betetzen direla aipatu beharra dago.

3.1.3. Zehar lerroekiko lotura

Urtxintxa proiektuaren barnean, helburu desberdinak planteatzen diren arren, badaude zehar lerroekiko lotura duten zenbait aspektu. Horiek orokorrean lantzen direla esan beharra dago, hau da, aplikagarriak dira edozein gai edo jarduerara. Zehar lerro anitzak

planteatzen diren arren, 6. eranskinean ikus daitezke, autoestimaren gakoei erreferentzia egiten dietenak.

3.1.4. Behaketarako adierazleak

Urtxintxa proiektuak zehaztuta dituen helburuak betetzeko, behaketa erabiltzen da sarritan. Oro har, premiazkoa den elementua da haurren ezagupena bermatzeko. Horretarako, proiektu honek, behaketa ahalik eta esanguratsuena egiteko asmoarekin, adierazle batzuk zehazten ditu. Hortaz, horiek kontuan hartu beharreko elementuak dira helburuez mintzatzen garenean. (Ikus 7. eranskina).

3.2. Irakasleei galdesorta

Aurreko atalean esan bezala dokumentazio teorikoaren azterketaren ondorengo galdesorta horretan agertu diren galderen erantzunez hausnartuko dugu. Hala ere, galdera horiei dagozkien grafikoak, 8. eranskinetan ikusgai daude.

Galdesorta honen bidez Urtxintxa proiektuan autoestima nola lantzen zen neurtzeko galderak burutu genizkien. Galdesorta hasteko, orokorrean gaiari buruz esplizituki galdetu genien irakasleei, ondorengo emaitzak lortuaz.

Urtxintxa proiektuak bere osotasunean haurren nahi eta beharrak kontuan hartzen dituen galdetzen dugunean, neurri desberdinetan baina ados, %65,8-a agertu da. Hala ere, adostasun hori erabatekoa da bakarrik %7,9an. Ordea, desadostasuna edo neutraltasuna agertu dutenak %34,2 izan dira. Erantzun horiek erakusten dute, nola Urtxintxa proiektuak haurren nahi eta beharrak kontuan hartu ahal dituela neurri handi batean baina, orokorrean, ez dagoela ziurtasun edo konfiantza osoa proiektuarengan aspektu horri dagokionez. Hau da, badirudi, irakasleek zerbait faltan botatzen dutela. Izan ere, galdera honetan, guztizko adostasuna adierazi dutenak oso gutxi izan dira.

Urtxintxa proiektu honen barnean, autoestimaren inguruan teorian esaten den eta praktikara aurrera eramaten dena berdina den galdetzen dugunean, portzentaia handienak adostasun nahikorekin (47,4%) eta neutro (39,5%) agertzen dira. Muturreko beste bi erantzunak, oso gutxitan agertu direla ikusten dugu.

Horren harira, Urtxintxa Proiektua, irakasleek modu berdinean aurrera eramaten duten edo ez galdetzean erantzuna nahiko portzentai bateratuan geratu da. Azken finean, Urtxintxa Proiektuak, helburu eta jarduera guztiak esplizituki zehaztuak ditu, beraz,

printzipioz, gida jarraituta, denek berdin antzera jokatu beharko lukete. Hala ere, irakasle bakoitzaren inplikazioa eta izaera nolakoak diren kontuan hartu behar dugu. Batik bat, %47,4k nahiko ados edo neutro agertu dira eta desados agertu direnak, %52,7k. Honen ondorioz, irakasleen ehuneko handi batek, bakoitzak duen jarrerari garrantzia ematen diola argi dago. Hau da, planteatzen den proiektua berdina den arren Ikastolen Elkarteko zentru guztietan, bakoitzak proiektua modu desberdinean bidera dezake. Ondorioz, proiektuaren esangura zeharo desberdina izan daiteke gela batetik bestera.

Urtxintxa proiektuak autoestima lantzeko behar duen guztia duen galdetzean guztiz ados eta guztiz desados, muturreko iritzien portzentaia txikia den arren, %42,1-a nahiko ados agertzen da eta %50-a desados edo neutro. Horrek esan nahi du, portzentaiaren erdiak uste duela Urtxintxa Proiektuari zerbait falta zaiola arlo hori behar bezala lantzeko. Ados egon direnetik, gehienak adostasun nahikoa adierazi dute eta ez guztizkoa, beraz, ziurtasun maila adostasun horren balidezia zalantzan jarri dezake.

Halere, Urtxintxak gelan autoestima egoki bat sortzeko giroa eskaintzen duen esatean %78,3 guztiz edo nahiko ados dago. Horrek esan nahi du, orokorrean, gelan sortzen den giroa, bai irakasle eta bai ikasleen aldetik, errespetuzkoa, gozotasunezkoa eta aproposa dela. Giro horrek ez du haurren autoestima ziurtatzen baina ibilbidea jarraitzea ahalbidetzen du hein handi batean.

Bestalde gelan ematen den autoestimaren lanketa modu espezifikoan jorratzen den ere galdetu genien. Erantzunak nahiko desberdinak izan dira baina %44,7k nahiko ados daude. Hau da, jarduera espezifikoak planteatzen dituzte autoestima lantzeko. Beste portzentai batek, neutraltasuna edo desadostasuna adierazten du. Oro har, %34,2k jarduera espezifikoak burutzen ez direla esaten dute. Nire ustez, espezifikoki lantzen diren jarduerak irakasle haietzako zer den zehaztu beharko genuke baina berriro ere, Urtxintxa Proiektuak sortarazte dituen jarduerak beste gai batzuetara bideratuta daudela argi dago. Honenbestez, irakasleen artean, muturrekoak diren erantzunak eskaini dizkigute gai honi erreparatuz.

Urtxintxa metodologian haurren iritziei lekua ematen zitzaien ere galdetu genien irakasleei, %71,1-ak baietz erantzun zuelarik. Horrek esan nahi du, metodologia honen barnean planteatzen diren jardueretan, haurren iritzia kontuan hartzen direla eta horien arabera jokatzeko dela.

Haurren iritziak kontuan hartzea garrantzia duen arren, erabateko garrantzia du baita ere sortzen zaizkien emozioen inguruan mintzatzea. Ikastolen Elkartetik jaso ditugun erantzunen %94,7k emozio horien inguruan mintzaten dela uste dute, hortaz, ea leku guztietan gai honi ematen zaion garrantzia handia da.

Jarraian jadanik Ribes et al.(2005)-ek planteatzen duten sailkapenean zentratuko gara. Hau da, jarraian aztertuko ditugun galderak autore horiek planteatzen duten zatiketan oinarrituta egongo dira.

Nire ezaugarriak

Ribes et al.-ek (2005) egiten duten sailkapena zein den kontuan hartuta, azpimarratzen duen lehen taldea, bakoitzaren ezaugarrietan oinarritzen da. Haurrek haien burua deskribatzeko gaitasunari garrantzia ematen zaion galdetuta %76,3-k baietz erantzun zuten. Eta baita hauen burua deskribatzeko (%94,8) eta beraien ezaugarriei buruzko balorazio espezifikoak egiteko (%65,9) ariketak proposatzen zizkietela ere.

Besteen ezaugarriak

Aurrean, bakoitzak bere ezaugarrien inguruko galderak egin ditugun arren, bestekiko erlazioan, bakoitzak besteen inguruan dakien informazioa ere premiazkoa da, hortaz, hurrengo galderak, hori bera izango dute oinarri. Haurrek besteen (kideen) burua deskribatzeko gaitasunari garrantzia ematen zaion galdetuta %73,7-k baietz erantzun zuten eta baita hori lantzeko (%60,6) ariketak proposatzen zizkietela ere.

Nahi eta nahiagoak

Hurrengo puntua haurren nahi eta nahiagoekin zerikusia duela jakinda, eskolan nahi eta nahiago horiek aukeratzeko zein aukera ematen zaien aztertu dugu, irakasleen %81,5 haurrei aukera horiek jorrazteko posibilitatea ematen zaiela uste dutelarik. Haurren nahi eta nahiago bakoitza ahalbidetu behar den arren, besteak dituzten nahi eta nahiagoak ere garrantzia dute haur guztiengan. Irakasleei horri buruz galdetzean irakasleen %84,2ak haurrei hau lantzea ahalbidetzen zaiela uste dute.

Horren harira, ikasleei besteen nahi eta nahiagoak ulertzeko ariketak zenbateko portzentaian egiten diren galdetu diegu. Honetan, neutraltasuna agertu zuten irakasleen %26,3k eta adostasun nahikoak %50k. Oso garrantzitsua da aukera desberdinak errespetuz tratatuak izan behar direla jakinaraztea baina berriro ere, irakasleak haurrei,

beharreko herramintak eskaini behar dizkie errespetuzko jarrera hori modu esanguratsuan barnera dezaten.

Pertsonen arteko desberdintasuna

Ikasleei beraien buruaren aspektu positiboan oinarritutako deskribapenak egitea ahalbidetzen dieten galdetuta %78,3-k baietz erantzun zuen. Hau garrantzitsua da, izan ere ikasleek haien buruarekiko aspektu positiboari dagozkien deskribapenak egitea, haien autoestima osasuntsua bultzatuko du, izan ere, ezaugarri horiez jabetuko dira eta guzti horiek norberak onartuko ditu. Aspektu positiboari dagozkien ezaugarri horiek positiboa den balorazio baten bidez bideratzea berebizikoa izango da haientzat eta gelan irakasleen %92,1ak lantzen du hau. Gai honen harira, azken galdera ezaugarri desberdin horiek errespetuz izendatzean oinarritu da. Ezaugarri desberdinak errespetu eta modu positiboan baloratu behar diren arren, garrantzitsua da haiek, ezaugarri horiek izendatzeko gaitasuna izatea eta irakasleen %79ak uste du ikasleek gaitasun hori dutela.

Estima eta harremanak

Azkenik, Ribes et al.-ek (2005) planteatzen duten azpitaldea, haurren estima eta harremanez mintzatzen da. Hasteko, haurrek nor maite dutenaz hitz egiten duten galdetu diegu. Horren erantzuna adostasunean oinarritu da hein handi batean, %76,3-a, hortaz, familia haien egunerokotasunean presente dagoela ikusi dezakegu. Gainera, haurrek maite dituzten pertsona horiei haien maitasuna zein modutan transmititzen dieten klasean irakasleen %76,3 lantzen dute. Azkenik, galdera itxiekkin bukatzeko, haurrek maite dituzten pertsonen kontzientzia izatea ahalbidetzen dutela uste dute irakasleen %73,7k.

Gure galdesortan erantzun librea izateko aukera izan duten bi galdera ere egin genizkien. Horien erantzuna esplizituagoa denez, azterketa sakonago bat egitea ahalbidetuko du.

Lehenengo galderan Urtxintxa Proiektuaren alderdi teorikoan, autoestima eta bestelako emozio eta sentimenduei aipamena egiten zaien galdetu genien eta baita zein neurritan lantzen diren horiek. Lehenengo galdera honetan ondorio desberdinak atera ahal izan diugu. Hasteko, irakasleen ehuneko handi batek eguneroko errutinetan espontaneoki ematen diren egoeretan autoestima eta emozioak lantzen direla antzeman da. Hau da, batzuetan modu gidatuan lantzen den arren, beste askotan, ematen diren egoerak

aprobetxatzen dira. Horrez gain, haurren adin, espazio ea testuingurua zein den kontuan hartuta, modu desberdinean jorratzen dela esan ohi da. Esaterako, 2 urteko haurrekin autoestima eta emozio horiek lantzea zaila dela pentsatu ohi dute edota, abileziarik ez dutela oraindik.

Orokorrean, adimen emozionalari ematen zaion garrantzia handia da eta ematen ez zaionean, denbora faltagatik izaten da sarritan. Hau da, denbora falta horrek premiak aukeratzera ekartzen du eta esan ohi duten bezala, premia horiek beste batzuk dira zenbait kasutan. Oro har, emozionalki ondo ez dagoen umea, beste arloetan zailtasunak izango ditu eta frakaso horrek blokeora eramanez uste da.

Bigarren galderan berriz autoestima eguneroko errutinetan nola lantzen zuten galdetu genien. Galdera honetan ere autoestima eguneroko errutinetan modu desberdin askotan aurrera eramaten dela ikusi da. Hasteko, gehien errepikatu den erantzuna makinistaren rolean oinarrituta egon da. Rol horrek autoestima lantzen laguntzen duela uste da eta enfasia jartzen zaio pertsonai horretan. Gainera, errefortzu positiboa, zenbaitetan errepikatu den erantzuna izan da. Eguneroko jardueretan, haurrek ondo egiten dutena uneoro goraiatzeari garrantzia ematen diote. Horrez gain, aipatu diren moduak maitasuna eta errespetuzko jarrerarekin lotura handia izan dute. Oro har, era transbersalean lantzen ohi dute autoestima nahiz eta ikastola batzuek “Pentacidad” bezalako proiektuak erabiltzen duten autoestima bereziki lantzeko. Horretaz aparte, aipatu diren gauzen artean, esanguratsuenak hurrengoak izan dira: elkarrizketa sustatzea, gatazkak aprobetxatzea, haurren erritmoa errespetatzea eta haien burua ezagutzeko aukerak eskeintzea eta frustrazio egoerak gainditzen lagunduz.

5. Ondorioak

Lana bukatzeko asmoz, maneiatu dugun informazioaren eta azterketaren ondorioak ateratzea premiazkoa da. Oro har, lanean zehar ondorioztatu dugunaz mintzatzeaz gain, hau da, ondorio orokorrak ateratzeaz gain, lanean zehar planteatu ditugun helburuak bete diren edo ez eta zein neurritan ikusiko dugu.

Hasteko, lanaren helburu nagusia, Haur Hezkuntzako Urtxintxa Proiektuan autoestima zein mailatan eta nola lantzen den jakitea izan da maila teoriko zein praktikoa aztertuz. Orokorrean ikusi izan dugu, autoestima lantzeko nahia nahiko handia dela baina oraindik ere beste zenbait arlo “akademikoagori” garrantzi handiagoa ematen zaiela.

Oro har, autoestima lantzea ahalbidetzen duten alderdiak zeharkako moduan aurrera eramaten dira gehienetan. Hau da, Urtxintxa programak ez dizkio irakasleari autoestima lantzeko jarduerarik proposatzen orohar.

Helburu orokor horretatik atera genituen azpihelburuak bete diren edo ez jakitea ere esanguratsua da. Horrela, hezkuntzan planteatzean den Urtxintxa proiektuak, maila teorikoan autoestima lantzeari ematen dion garrantzia nolakoa den kuantifikatzean, esplizituki, autoestimari egiten zaion erreferentzia oso txikia dela frogatu dute gure datuek, “autoestima” hitza ez baita zuzenean agertzen. Halere, autoestima lantzea ahalbidetzen duten faktoreak aldiz nabariagoak dira. Esaterako, konfiantza, harremana edota sentimenduak bezalako kontzeptuen lanketa planteatzen du Urtxintxa programak; kontzeptu horiek, autoestima egoki bat eraikitzeke mugarriak liratekeelarik.

Bestalde teoria horretan plazaratzen dena, praktikan, aurrean esan bezala, Urtxintxa metodologia horren erabileran diharduten irakasleengandik jaso dugu. Irakasleen erantzunetatik ondoriozta dezakegu autoestimari ematen zaion garrantzia nolabaitekoa dela baina beste alderdi batzuek garrantzi handiagoa hartzen dutela kasu askotan, hala nola, hizkuntza edo arte plastikoak.

Teorian eta praktikan esaten dena alde batera utzita, ikastola desberdinetan aurrera eramaten den metodologiaren oinarriak berdinak diren arren, zenbait faktorek metodologia horren esangura aldatu dezaketela ikusi dugu. Desberdintasun hori, faktore desberdinen arabera ematen da, garrantzitsuenak hurrengoak direla ondorioztatuz: irakaslearen izaerak proiektua erabat eraldatzen du eta zehaztua den proiektua den arren, bakoitzaren interpretazio propioak esanguratsuki alda dezaketelako. Hau da, irakaslearen parte hartzeak, rol-ak, esku hartzeak, nahiak eta pentsamoldeak erabateko eragina dute. Horrez gain, haurren ezaugarrien arabera ere, modu batean edo bestean landuko da orain arte protagonista izan dugun gai hori (haurren adina, arlo desberdinei dagozkion garapena...). Inkesta bete duten irakasleen erantzunetan ikusi dugu, irakasle bakoitzaren izaerak eta pentsamoldeak erabat aldatu dezaketela proiektuaren esangura eta horretan aurrera eramaten diren jarduerak. Hortaz, proiektu batean planteatzen dena eta irakasleak bideratzeko modua hertsiki lotuta daude.

Ondorio orokor gisa esan dezakegu, autoestima lantzea oso garrantzitsua dela guztiok ados gauden arren oraindik haren presentzia esplizitua gidetan sartzea falta dela. Horrela, irakaslearen jarrera propiotik haratago bere lanketa bermatuko dugularik.

Familia eta eskola haurrak gehien baldintzatzen dituzten iturriak izanik, eskolan egiten dena gure esku dago. Gaur egun hain erabilia den Urtxintxa proiektu honetan, autoestimari ematen zaion garrantzia beste arlo batzuei ematen zaiena baino txikiagoa izan arren, landu egiten da edota behintzat hori da helburua. Hala ere, autoestimaren onurak zeintzuk diren kontuan hartuta eta bere gain hartzen dituen arloak zeinen anitzak diren ikusiaz, garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokela da gradu amaierako lan honen azken hausnarketa.

5.1. Limitazioak

Lana aurrera eramateko ondorioen barnean, berau aurrera eramateko izan ditugun limitazioak aipatzea premiazkoa iruditzen zaigu. Hasteko, galdesorta ad-hoc formatuan sortu dugu, beraz, ez ditu betetzen galdesorten balidezia indizeak (alfa crombach), baina gure kasu konkreturako galdesorta espezifikoko balidaturik ez genuenez aurkitu, ezta autoestimaren lanketa Haur Hezkuntzan lantzekorik ere ez, guk bat sortzea erabaki genuen.

Horrez gain, Ribes eta al. (2005)-en paradigman oinarritutako lana izan da, gure ustez, azalpen osatuena osatzen duen paradigma baita.

Oro har, online betetako galdetegia izan da, hortaz ez dugu haien komentario gehigarri edo jarrerari dagozkien aspektuak aztertzeke aukera izan. Gainera, irakasleen gaiarekiko motibazioa, galdetegian jaso ditugun erantzunak baldintzatuta egotea ekarri ahal izan du.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Alonso, J. (2002). *Prácticas educativas familiares y autoconcepto. Estudio con niños y niñas de 3, 4 y 5 años* (Tesis doctoral). Universidad de Valladolid: Valladolid.
- Aguerrondo, I. (1997) ¿Es posible impartir educación de calidad con menores costos?. *Perspectivas, Revista trimestral de Educación Comparada*, 26-(2).
- Bermúdez, M. P. (2000). *Déficit de autoestima. Evaluación, tratamiento y prevención en la infancia y adolescencia*. Madrid: Pirámide.
- Cano, M. (2011, urtarrilak 24). Como mejorar la autoestima mediante el pensamiento positivo. Autoestima y emociones. <https://autoestimaemociones.wordpress.com/?s=como+mejorar> –tik berreskuratua.
- Cassidy, J. (1990). Theoretical and methodological considerations in the study of attachment and the self in young children. *Attachment in the preschool years: Theory, research, and intervention*, 87-119.
- De la Sierra, P. (2017). *La importancia de la autoestima infantil*. Barcelona: Reeducar.
- Elkar Argitaletxea. (2002). Urtxintxa Proiektua. *Ttanntto Gida*. Euskal Herria: Elkar.
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. BOE, 295 zenbakia. 2017/01/17 berreskuratua: <http://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>
- Martínez, S. D. (2010). La Educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 1(8), 1-15.
- Gullamón, N. (2004). Educando a los niños para prevenir la ansiedad. Clinica de la ansiedad. 2017/01/23 berreskuratua: <https://clinicadeansiedad.com/soluciones-y-recursos/prevencion-de-la-ansiedad/educando-a-los-ninos-para-prevenir-la-ansiedad/>

- Gonzalez-Pianda, J., Nuñez, C., Glez-Pumariiega, S. eta García, M. (1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. *Psicothema*, 9(2), 273.
- Izquierdo, C. (2008). *Crecer en la autoestima*. Perú: Paulinas.
- Maslow, A. H. (1943). A theory of human motivation. *Psychological review*, 50(4), 370.
- Miranda, A.M^a. (2014). Propuesta didáctica para mejorar la autoestima en Educación Primaria (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Valladolid: Valladolid.
- Moreno, E. (2001). Analisis de la influencia de la familia en los habitos lectores de sus hijas e hijos: un estudio etnográfico. *Contextos educativos*, 4, 177-196.
- Narvárez, E. (2006). Una mirada a la Escuela Nueva. *Educere*, 35, 629-636.
- Panzsa, M. (1988). Modelos educativos. *Sociedad-educación-didáctica*, 1(1-4)
- Ribes, R., Bisquerra, R., Agulló, M. J., Filella, G., eta Soldevila, A. (2005). Una propuesta de currículum emocional en educación infantil (3-6 años). *Cultura y Educación*, 17(1), 5-17.
- Rice, P. (2000). *Adolescencia. Desarrollo, relaciones y cultura*. Madrid: Prentice Hall.
- Román, J.M., Sánchez, S. y Secadas, F. (1997). *Desarrollo de habilidades en niños pequeños*. Madrid: Editorial Pirámide
- Savater, F. (1997). *El valor de educar*. Barcelona: Ariel.
- Soldevila, A, M. J., Agulló., Filella, G eta Ribes, R. (2014). Emocionarse tambien en el aula. Educación Emocional en la etapa Infantil y Primaria. Lleida. 2017/03/23 berreskuratua: <http://blocs.xtec.cat/joanramongasso/files/2014/07/Article-EE-distribuci%C3%B3-continguts.pdf>
- Van Arcken, H. (2012). La escuela tradicional. *Pedagogia, didactica, competencias y evaluacion para docentes*. 2016/12/22 berreskuratua: <https://pedagogiadocente.wordpress.com/modelos-pedagogicos/la-escuela-tradicional/>

